



215. zenbakia

OTSAILA 2022

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Manu Alvarezek bidalitako argazkia. Beruete MTB

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira otsailaren 9an bidalia



LEHEN SEMEAZ ERDITU NINTZENEAN

“Lehen semeaz erditu nintzenean

botila bat oparitu zidan
amaginarrebak.

Gran Vino Sansón.

Bere amaginarrebak
erregalatu zion berbera.

Egongelan kristalarentzako
armairuan

hogeita hamar urte eta
gehiago gordeta izan zuena.

Hasieran ez nuen
mezua ondo ulertu.

Ezagutu ez nuen sei seme-
alabaren amandrea

asmatzen nuen baserrian

lan egun gogor baten ostean
suaren ondoan barrua berotzen:

Ongi etorri amen erreinura.

*Hemen naukazu behar
nauzunerako.*

Esan nahi ote zidan

bizitzak berak emango
zidala zer edana

ardo goxoa bezain bero
eztarrian behera

hitzak oihuak aieneak
lurruntzeko?

Vino rancio viejo aromatizado
preparado especialmente para

Bodegas de la Victoria S.A.

Botilan pilatutako
hautsetan utzi nuen

ama izan osteko lehen
hatz marka. “

*Leire Bilbao,
Etxeko urak, 2020*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra





Suizidioa

Hitz egiteak zauriak orbaintzea eta kasu gehiago ekiditea laguntzen duelako

Isiltasuna eta tabua. Horixe izan da suizidioaren aurrean gure gizarteak urte askoan eman izan duen erantzun bakarra. Zalantzagatik eta beldurragatik izan da seguru aski, laguntza nola eman eta gaia nola tratatu ongi jakin ez dugulako. Argi dagoena da, gaur egun, suizidioaz hitz egitearen eta gaia jendarteratzearen garrantziaz adostasuna dagoela: adituek, prebentzioaren bueltan diharduten elkarteek nahiz kasuak hurbiletik bizi izan dituztenek, denek diote isiltasunak eta gaia ekiditeak onurak baino, kalteak dakartzala.

Espainiako estatuan, heriotza ez-naturalen artean kausa nagusia izan zen suizidioarena 2020an, trafiko istripuak 2,7 aldiz gaituz. Nafarroan ere, urte horretan, 43 pertsonak egin zuen bere buruaz beste. Datuek erakusten dute arazo handi baten aurrean gaudela, eta beharrezkoa dela gaia lantzea eta prebentzioan eta osatzean inbertitzea.

Pedro Villanueva psikologo eta Itxaropenaren Telefonoa egitasmoko kideak hitz egitearen beharra azpimarratu du. "Jendea sentsibilizatzea eta gaiak hitz egitea da suizidioaren inguruan ematen ditugun hitzaldien helburu nagusia, horixe izan baita orain arte egon den gabeziarik handiena", dio. Hain zuzen, iazko martxoan izan zen Villanueva Larrainzarren gaiaren inguruko hitzaldi bat

“Ezin
dugu suizidioa
gaixotasun
mental bezala
soilik tratatu,
arazo soziala ere
badelako”

ematen, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta. Jende asko batu zen ekimenera, eta parte-hartzea ere handia izan omen zen.

Gaia ikusgarri egitea

Saio hartan parte hartu zuen Edorta Lopez zigandarra ere ados agertu da Villanuevarekin. 16 urteko semea, Joar, duela urte batzuk galdu zuen Lopezek, bere buruaz beste eginda. "Jende askorentzat suizidioa existitu ere ez da egiten, hurbiletik bizitzea egokitzen den arte ez baita horretaz gehiegi pentsatzen", dio. Urte askoan tabua izan den gaia ikusgai egitea ezinbestekoa iruditzen zaio berari ere, sufritzen duen jende horri nola lagundu, edo behintzat akonpainamendua nola egin ikasteko eta prebentzioa bultzatzeko.

Elkarte asko Prebentziorako Plan Nazionala eskatzeko borrokan ari da. Hain zuzen, Osasunaren Mundu Erakundeak egindako gomendioa da prebentzio planarena, eta horrelakoak martxan jarri diren herrialdeetan lortu dute indizeak jaitea. "Bai, prebentzioa posible –eta beharrezkoa– da, eta suizidio kasu gehienak ekidin daitezke", nabarmendu du Villanuevak.

Itxaropenerako espazioak sortzearen garrantzia

Gaia argitara ematea eta sozializatzea ezinbestekoa dela argi gelditu da, beraz. Kontua da, nola hitz egin –eta nola ez–? Villanuevak honela erantzun du: "Werther efektua deritzona ekiditea da gakoa, kutsatze efektu hori, alegia". Horretarako, ezinbestekoa da psikologoaren ustez morboa alde batera utzita suizidioaz hitz egiteko tokiak bultzatzea:

Urteak daramatza Pedro Villanueva psikologoak suizidioaren gaia lantzen





espazio positiboak sortzea, itxaropenerako, pedagogiarako eta ezagutzarako espazioak, taburik gabe funtzionatuko dutenak eta sufrimendu egoeretatik pasatu bai baina aurrera egitea lortu dutenen esperientziak ere jasoko dituztenak. “Suizidioa zerbaiten ondorio da; buru gaixotasunak hor daude, baina kontuan izan behar dugu zerbait sozialaren ondorio ere badela”.

Lopezek ere beste hausnarketa bat partekatu du, zentzu berean doana. “Ezin dugu suizidioa gaixotasun mental gisa soilik tratatu, arazo soziala ere badelako. Trans pertsonen suizidio tasa, esaterako, oso altua da. Edo gaztetxo bat eskolan baztertua dena futbola gustatzen ez zaiolako eta rarito bat dela esaten delako... horiek guztiak gizartearen arazoak dira”, dio. Azken batean, suizidioen %60 eta 90 artean gaixotasun eta ezinegon mentalekin –batez ere depresioarekin– lotzen dira, baina ezinegon horietako asko ere ikuspegi beretik uler litezke.

Sufritzen ari direnei baliabideak eta erremintak eskaini behar zaizkie, bien ustez. “Joera suizidak dituzten pertsonen jakin beharra dute honetaz hitz egiten ari garela, badela irtenbidea eta laguntza. Jakin beharra dute sufrimendu hori itzaltzeko, edo behintzat arintzeko, erremintak eskura dituztela: terapiatik hasi eta akonpainamenduraino”, dio Lopezek. Gizarte gisa ere, momentu txarrak pasatzen ari diren horiei baldintzarik gabeko laguntza eskaintzea beharrezkoa dela uste du. Baina, horrez guztiaz gain, noski, ezinbestekoa da instituzioetatik eta administrazioetik ere beharrezko medioak eta baliabideak bermatzea. Gizarte Segurantzaren psikologo gehiago kontratatzea, lehen pausu bat izan liteke bide horretan.

Emozioen kudeaketa lantzea

Psikologoaren iritziz, sufrimenduaz, frustrazioez eta bestelako emozio eta sentimendu negatiboez hitz egiteko ezintasun handia dago gaurko jendartearen, eta pixkanaka horri buelta ematen hastea ere garrantzitsua da. “Orokorrean, seme-alabak isilean daramatzate arazoak. Haien lorpenak kontatzen dituzte, baina sufriarazten dieten gauzak ez. Agian gu ez kezkatzeko egiten dute, edo indartsuak direnaren irudia mantendu nahi dutelako, hori baita behin eta berriz transmititzen dieguna”.

Kontua da, prebentziorako ezinbestekoa den beste hanka emozioen kudeaketarena dela, eta fokua askotan seme-alabengan eta gaztetxoengan jarri arren, helduek ere antzeko gabeziak izan ohi dituztela alor horretan. “Nire ustez, orokorrean ez gara laguntzen uzten, ez asko behintzat”, dio Lopezek. Azken batean, Villanuevaren arabera, arrakastarako heziak izaten gara umetatik, eta porroterako, berriz, ez. Horri buelta ematen hasteko garaia bada.

Egon litezkeen zantzuei adi

Zoritxarrez, suizidio kasu askotan hurbilekoek ez dute inongo seinale edo zantzurik izaten gertatu daitekeen horretaz, eta horregatik da hain zaila egoerari aurre hartzea.

“ Aholkuak ematea baino, laguntzarik onena entzuten jakitea da ”

Dena den, beste zenbaitetan, zantzu txiki eta azalekoak egon daitezke, eta horietako batzuk azaldu dizkigu psikologoak: “Norbaitek bere etorkizunaz heriotzarekin edo suizidioarekin lotutako komentarioak egiten baditu, sufrimendu jasanezin batez hitz egiten badu edo despedida modukoak egiten baditu –izan idatziz, whatsapppe nahiz ahoz–, alarma sortu gabe, baina kontuan izatekoak behintzat badira”, dio.

Eta horrelakoen aurrean nola jokatu? Bada, argibide hauek eman ditu. “Lehenengo gauza hurbiltzea da, konfiantzazko klima bat sortzea eta hitz egitea. Baina, laguntzarik onena entzutea da. Ikasi beharra dugun zerbait da hori, aholkuak eman baino, entzutea”. Aldi berean, nabarmendu du suizidioari lotutako ideiak dituzten pertsonen jakin behar dutela zurekin kontaktu dezaketela, horrela sentitzen direnean zuri –edo beste norbaiti– lasai deitzeko aukera duela. “Noski, norbait zerbait egiteko puntu dagoela sumatuz gero, bakarrik ez uztea gomendatzen da, konpainia egitea eta berarekin egotea”, gehitu du.





Dolua, bide luze eta mingarri hori

Semearen suizidioaren ondoren, doluaren inguruan lan egiten duen Goizargi elkartearekin aritu zen Eduardo Lopez hainbat hilabetez. "Ikaragarri lagundu zidaten, baina kontuan izan behar da psikologoek miraririk ere ez dutela egiten", argitu du. Pixkanaka-pixkanaka eta pauso txikiak emanez joan zen, berak dioen bezala, 'iristen zitzaion edozein adar txikiri eutsiz'. "Hasieran, sufrimendua hainbestekoa zen, non uste nuen erotzen ari nintzela", dio. Terapia indibidualean eta taldekoan aritu zen lehen hilabeteetan, eta tailerrak ere egin zituen. Profesionaletara



jotzea aukera on bat dela argi du Lopezek, baina bati psikologoak ematen dion laguntza hori, beste bati inguruko beste pertsona batek ere eman diezaiokeela uste du: lagun batek, bikoteak, familiako norbaitek... "Hori bai, egia da adituek oso lagungarri izan daitezkeen jarraibide zehatzak ematen dituztela".

Hurbileko norbait bere buruaz beste eginda galtzen dutenen artean oso ohikoa den kulpa sentimendua ere presente izan du zigandarrak. "Askotan galdetzen duzu, 'zer egin dut gaizki?', edo egin edo esandakoez damutzen zara, edo egoeraz ez ohartu izanaren errua botatzen diozu zure buruari... sentimendu horiek barrua jaten dizute, eta askotan bueltatzen dira", dio. Jakin badaki, dena dela, emozio horiek kalte besterik ez dutela egiten, eta horretatik ateratzen saiatu beharra dela.

"Niri lanean hasteak, euskara ikasteko izen emateak eta horrelako pauso txikiak prozesuan laguntzen didatela uste dut", azaldu du Lopezek. Horrez gain, jendeari laguntzea edo boluntarioritza desberdinak egitea ere suizidioaren ondorengo dolu prozesuetan lagungarria izan daitekeela uste du. "Baina tira, bakoitzak prozesua eramateko modu desberdinak izanen ditu, eta garrantzitsua da hori eta norbere denborak errespetatzen jakitea", dio. Lopezi, adibidez, on handia egiten dio semearen errautsak dauden tokia bisitatzeak, berari buruz hitz egiteak, bere memoria bizirik mantentzeak. "Beste bati agian horrek ez dio lagunduko eta beste behar bat izanen du", argitu du.

Prozesua bizitzeko moduak mila badira ere, ziur antzeko esperientziak ezagutzea eta partekatzea lagungarri izan dakiokela beste norbaiti. Helburu horrekin hitz egin du Lopezek erreportaje honetan. Eskertzekoa. "Norbaiti agian nire esperientziak zerbaitetarako balioko diolakoan, horregatik egiten dut", amaitu du.



Telefono eta elkarte interesgarri zenbait

Itxaropenaren Telefonoa:
717 003 717 (24 orduak)
telefonodelaesperanza.org

Besarkada elkarte
(Hurbilekoen suizidioak eragindako pertsonen elkarte)
besarkada-abrazo.org

ANAR Fundazioa
(Gazte eta nerabeentzako laguntza):
anar.org

Goizargi elkarte
(doluan laguntza)
goizargi.org

Etxe osasuntsuak: bioeraikuntza

Maiz paratzen dugu arreta naturaren inguruan edo **jasangarritasuna** sustatzen duten gaietan. Ideia horri jarraiki, poliki-poliki oihartzuna lortzen ari den gai batekin gatozkizu: bioeraikuntza.

Egungo ohiko eraikuntzatik aldentu, eta inguruarekiko errespetuan finkatzen du ardatza bioeraikuntzak. Hala, modu eta filosofia horretan oinarrituta eraikitako etxeek, eraikin tiki zein handiagoek, honako printzipio hauek biltzen dituzte beren baitan: energetikoki efizienteak dira, material naturalez eraikiak, jasangarriak eta bertan bizi direnentzat osasungarriak.

Energetikoki efizienteak izateak erran nahi du ura eta energia garbiaren (**berriztagarriaren**) **autohornikuntza** sistemak erabiltzen dituztela: euri-ura biltzeko sistemak, eguzki-plakak, haize-errotak... eta, ahal den neurrian, produktu eta eremu kutsagarriak **saihesten** dituzte.

Bertzetik, material naturalak aipatu ditugu; izan ere, lastoa, egurra, **buztina**, lurra, **karea** edota kortxoa bezalako materialak erabiltzen dira mota horretako eraikuntzetan. Beharbada, baten bati hiru txerritxoen ipuina etorriko zaio gogora: otsoak aise bota zituen lastozko eta egurrezko etxeak putz eginez, eta adreiluzkoa, aldiz, ez zuen suntsitzea lortu, sendoena baitzen. Zorionez, hori ipuina baino ez da, eta errealitateak bertzelako **bizipen** batzuk erakusten dizkigu. Errate baterako, lastoz egindako blokeak erabiltzen ditu bioeraikuntzak etxe sendoak egiteko, lastoa material isolatzaile hagitz ona baita. Lastozko fardo edo bloke horiek **gisuz**, buztinez edo egurrez estali ohi dira, ondotik.

Osasungarriak ere badirela erran dugu; hau da, ez dute **eritasunik** sortzen bertan bizi direnengan. Izan badira "etxe eriak" deiturikoak, eraikitzeko erabilitako materialak direla, beren orientazioa dela edo bertze hamaika faktore dela, eritasunak sortzen dituztenak.

Baina, eraikuntza mota hau ez da inongo modernitatea. Egiazki, Euskal Herrian, halako eraikin **andana** dugu gure mendietan: baserriak. Pixka bat pentsatzen badugu, ohartuko gara bioeraikuntzari atxikitzen zaizkion kontzeptu guziak biltzen dituela gure arkitektura tradizionalak: baserriak material naturalez eginak dira, eta orientazioa nahiz kokapena espresuki pentsatuak daude eguzkiaren beroa aprobetxatzeko eta iparreko hotzaz babesteko. Beraz, finean, bioeraikuntza arkitektura tradizionala berreskuratzean datza, betiere, garaiko elementu moderno eta jasangarriak integratuz.

Hiztegia

Jasangarritasun: sostenibilidad

Berriztagarri: renovable

Autohornikuntza: autoabastecimiento

Saihetsi: evitar

Buztin: arcilla

Kare/gisu: cal

Eritasun: enfermedad



Bioeraikuntza ▲



Hemen duzue Esan Erran irratiaren egin zitzaion elkarrizketa, entzuteko.

Basaburuan 70 baserri baino gehiago daude, eta ez bost, noski

214. Pulunpen, Helpbidea ekimenaren inguruko erreportajearen, 4-5. orrialdeetan, akatsa egin genuen eta hemen zuzendu nahi dugu.

Santos Etxegia Basaburuko zinegotziaren hitzetan akatsez hurrengo hau jarri genuen: "Hemen Basaburuan bost bat baserri dago".

Berak esandakoa hurrengoa da, ordea: "Hemen Basaburuan ez dago Leitza eta Baztanen honbeste baserri".

Honbeste, euskalkiz, eta, honenbeste, batuaz. Barkamenak eta eskerrik asko Santos Etxegiari, erreportajerako informazioagatik eta zuzenketarengatik.



Helpbidearen erreportajearen irudia

100 urte baino gehiagoko estankoa, itxita

Abenduaren 30ean itxi zituen ateak Lizasoko estankoa. Lau belaunaldi ikusi ditu tabako dendak, baina bere azken jabeak, Patxi Ezkurrak, erretiroa hartu eta ezin izan du ordezkorik aurkitu. Estankoko lanarekin batera, Bel fabrikaren lan egiten zuen Ezkurrak, horregatik, langile bat ere bazuen estankoa. Urtarriletik, ordea, Iraizozko estankoa besterik ez da gelditzen Ultzaman eta eskualde osoan.

Ez dakigu zehazki noiztik den estankoa Lizason, baina 100 urte baino gehiago dituela ziurra da, 1886. urteko dokumentuetan agertzen baita: Micaela Oskotz Larunbe lizasoarra alargundu zeneko paperetan, hain



Lizasoko estankoa

zuzen ere. Hala azaldu zigun Txurdanek, Pulunpeko kolaboratzaileak, Aspaldiko Kontuak atalean, 2019ko urtarrilean.

Jose Fermin Igoa Nuinekin zegoen ezkontuta Oskotz, eta estankoa zutela adierazten dute hura hil zeneko dokumentuek. Gero, Micaela Oskotzen eta Jose Fermin Igoaren Pedro semeak jaso zuen, oso denbora laburrez, eta haren arreba Gregoriak ondoren. Gregoria 23 urtetan ezkondu zen Ilarregiko Joaneko Francisco Ezkurra Nuinekin.

Francisok, merkatarari senekoa bera, denda ere gehitu zion estankoari Kuartelenean; Ultzama aldeko dendarik handiena izan zena. Ondoren Antolin Ezkurrak, Francisco Ezkurraren semeak hartu zuen denda eta estankoa, etxerako gelditu baitzen, nekazalgoarekin ere jarraituz. Pilar Carrillo Arozena iruindarrarekin ezkondu zen eta azienda utzi zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak sukurtsala ireki zuenean. Lizasoko sukurtsalaren zuzendari jarri eta estankoa eta denda emazteari eta semeari utzi zien. Azkenean, Patxi Ezkurra semeak jaso zuen estankoa. Bel fabrikako langileak erretiroa hartu berri du eta estankoa itxi behar izan du betiko.



iritzia



Onintza Enbeita

Prezioak

2022ko urtarrilak 30

Milioi bat euro eta erdi eskatzen ditu baserriaren truke: ez omen du diru hori bizitzeko behar. Itxaron egin dezake norbaitek diru hori bildu arte, baina ez du bere etxe ederra oparitu nahi. Nahiago du eror dadin merkeegi saldu baino. Batek pentsatzen du dirurik ez badu behar erokeria bat dela hainbeste diru eskatzea, baina bat da erratuta dagoena. Izan ere, gainean zerbait eraiki dakioken lur zatia berrehun mila eurotan saldu dute auzoan. Belardi bat, aizue: belarra biltzeko bakarrik balitz, mila euro ere balioko ez lituzkeen belardi aldapatsua. Jendeak esaten duenez, normala da prezio horiek jartzea: kalera joanez gero, edozein zulok balio du berrehun mila. Hori ere ez da normala, baina hala balitz bezala bizi gara.

Urdaila estutzen zait zenbakien dantza ero horretan. Ez dakit zer sartu diguten buruetan, baina etxeak inbertsio gisa erosi behar genituela esan zuenak kartzelan behar luke. Etxea bizitzeko denok behar genukeen lekua da. Eta lurra landu nahi ez duenak erraztu egin behar lioke bidea hala egin nahi duenari. Baina ez. Guri esaten digute behar ez dugun etxe baten salmentatik aberastu egin behar dugula. Jakina: aberastu etxe hori behar duenaren kontura. Eta orain, gure kontura ederto bizi den konglomeratu anker batek erabakitzen du gure etxeen balioa.

Mendialdeko azoka ibiltaria, arrakastatsua berriz

Antolatzen den bigarren urtea izan da 2021ean, eta ez da azkena izanen, aurten ere martxan jarriko baita Cederna Garalurreko Amaiur Unzuetak esan bezala: "Jende nahikoa etorri da, eta, beraz, pozik gaude. Batez ere ingurukoa, eta hori izan da beti azokaren helburuetako bat. Baina baita Iruñetik, Sakanatik eta Gipuzkoatik ere".

Azoka ibiltaria maiatzetik azaroaren 7ra bitartean izan da martxan, Araitzen, Areson, Atetzen, Basaburuan, Goizuetan, Imotzen, Larraunen, Leitzan eta Lekunberrin. Elikagaien eta artisauen 20 eta 28 postu inguru izan dira horietan. Izan ere, Mendialdean ditugun ekoizleak eta artisauak ezagutaraztea da azoken asmoetako bat. Azoka ibiltaria ez da garai hoberenean jaio, meritua, beraz are handiagoa da: "Hasierakoetan osasun neurri gehiago hartu behar izan ziren, baina hurrengoetan giroa lasaiagoa izan da, eta nabaritu da".

Horregatik guztiagatik, aurten berriz izanen dugu azoka, antolatzen hasteko urtarrilaren 11n bildu zen talde eragilea. Apirilaren 24n, Araitzen izanen da lehena. Eta, gure eskualdean, apuntatu datak: Uztailaren 3an eta 24an Imoztik eta Basaburutik igaroko da, eta irailaren 4an Ateztik. Hain zuzen ere, Atezkua izanen da azken data. "Postuez aparte hainbat tailer antolatzea planteatu dugu noizbait. Aurten Habelarteren aurkezpena izan da -eskualdean sortu berri den nekazarien elkarte, oinarri agroekologikoa duena-, baina heldu den urtera begira, beste tailer eta aurkezpenak izatea baliteke".



Azoka Ibiltaria Beuntzan, Atetzen, irailean ▲



Helduendako gitarra ikastaroa proposatu dute Imotzen

Josune Ilundain Iribarren Imozko bizilagunak, helduendako hastapeneko gitarra ikastaroa proposatu du eskualdean. Horretarako, 6-8 laguneko taldea osatu nahiko luke, astean behin ordu eta erdiko iraupeneko klasea emateko.

"Ikastaroaren helburu nagusia da talde-giroa eta elkarlana sustatzea: gitarraren inguruko oinarrizko jakintzak jasotzea, lezio praktikoak ematea eta musikaren eta gustuko kanten inguruan gozatzea", azaldu du zabaldutako afitxan.

Klaseekin martxoan hasia litzateke ideia. Interesa dutenek bidelagunarekin jar daitezke harremanetan, josuniii@gmail.com helbidera idatziz. Izena emateko

asmoa dutenek, otsailaren 21a baino lehen egin beharko dute.



Otsailaren 21a arte eman dezakete izena gitarra ikasi nahi dutenek ▲

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak...

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzeraz eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburu Menu berezia km·0 eta karta.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA



Bukatu da Pilota Goxoa txapelketa

Ilbeltzaren 29an jokatu ziren 2022ko Pilota Goxoa txapelketako finalak, Gartzarongo frontoian. Arratsaldeko 17:00etan hasi ziren partidak, eguraldia lagun. Inguruko pilotazaleak ere hurbildu ziren txapelketaren bukaera ikustera. Urtero bezala, hiru maila desberdin izan dira aurtengoan ere. Hauexek dira finalak utzitako emaitzak:

Hirugarren mailan: Gorka Sueskun – Adur Aleman
13-22 Mikel Diaz – Ekhi Goñi

Bigarren mailan: Unai Marin – Mikel Baleztena 20-22
Javier Osinaga – Miguel Javier Lazkoz

Lehen mailan: Eneko Legarra – Iñaki Barbajero 22-16
Iñaki Oskoz – Aritz Andiarena

Aurreko urteetan baina beranduxeago hasi zen txapelketa, eta ondorioz, bukaera ere zertxobait atzeratu da. Izen ematea aurreko urteekin alderatuta zertxobait jaitsi da, baina antolatzaileak pozik agertu dira dena den: bost bikotek eman zuten izena lehen

mailan, 14 bikotek bigarrenen, eta hamaikak hirugarrenean.

Behin Pilota Goxoa txapelketa amaituta eta aurreko urteetako dinamika jarraituz, frontenis eta pala txapelketa izanen dira hurrengoak.



Ilbeltzarek 29an jokatu ziren txapelketako finalak Gartzaronen ▲

Martxan dira eskualdeko Korrika batzordeak

Ilbeltzaren erdialdean eman zuten jakitera 2022ko Korrikaren ibilbidea, eta pozik jaso dugu berria, aurtengoan ere Korrikak gure eskualdea zeharkatuko baitu. Martxoaren 31n abiatuko da Korrika Amurriotik, eta apirilaren 10ean bukatuko da Donostian.

Tartean, apirilaren 5ean, gure eskualdean izanen da: Baztandik gurera etorri eta Arraiztik sartuko da eskualdera, goizeko 10:05ean. Alkotz, Iraizotz, Larraintzar eta Auza pasatu ondoren, Basaburuan sartu

eta Gartzarondik ere pasatuko da, goizeko 11:49 aldean. Jauntsarats igaro ondoren, Beruete gurutzatu eta eskualdea atzean utziko du Korrikak, Larraun aldera joz.

Korrika igaroko den eguna eta Korrika kulturala antolatzen hasteko, martxan jarri dituzte honezkero eskualdeko Korrika Batzordeak. Imotz eta Basaburuakoa hasi zen biltzen lehenik, eta Ultzama aldekoa gero. Bultzatzaileek dei egin diete herritarrei Batzorde horietan parte hartzeko.



Korrika Erbitin ▲



Bi urtez itxita egon ondoren, Berueteko Txasenea sagardotegia zabaldu dute

Koronabirusaren pandemiak sagardotegi denboraldi bete-betean harrapatu zituen duela bi urte eskualdeko sagardotegiak. Berueten (Basaburuan) daude biak; Txaseneko Borda eta Behetxonea. Iaz ez zituen atea ireki bietako batek ere, baina aurtengoan, Txasenea irekitzeko erabakia hartu dute bertako kideek. "Pandemia bukatu arte itxita mantentzea zen hasierako asmoa, baina egoera luzatzen ari dela ikusita, azkenean irekitzea erabaki dugu", azaldu zuen Manu Alvarez sagardotegiko semeak Esan Erran irratian. Ilbeltzaren 22an zabaldu zuten jatetxea.

Urtero bezala, sagardotegiko menu tradizionala eskainiko dute Txasenekon: bakailao tortila, txuleta eta berueteko gazta etxeko sagar menbrilo eta intxaurrekin. Dena dela, enkarguz bestelako platerak eskatzeko aukera ere ematen dute; txorizo krioloa, bakailao takoak, arraina parrilan...

Maiatzaren 1ean bukatuko da aurtengo sagardo denboraldia, baina aurtengo egoera dela eta, ikusiko dute Txaseneakoa zertxobait luzatu edo ez.



la bi urte eman ditu itxita Txaseneko sagardotegiak ▲



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699



Madali Carpintero Navarro, irakaslea

“Orain ikaslea gehiago inplikatzan da, bere parte-hartzea handitu da”

Madali Carpintero Navarro erasoarra ez du zertan eskolara itzuli behar. Ingeleseko irakaslea, abendu hasieran hartu zuen erretiroa, lanbidean 35 urtez aritu ondoren, azken zazpi urteak Jauntsaratsen. Ez du zertan eskolara itzuli behar, baina aitortu digunez ordutik hiru aldiz joan da bisitan. Nahiz eta,aldi berean, oso pozik dago jubilatuta. Yoga, pilates eta tonifikazioa egiten du, Lekunberriko igerilekura joaten da, bi lagunekin biltzen da astero ingelesez hitz egiteko, eta, gainera, denbora gehiago du paseorako, irakurtzeko, eta sukaldean aritzeko. Badaki oso ongi zertan ibili lehen lanean ematen zuen denbora.

Nola gogoratzen dituzu lehenengo urteak?

Hasiera horretan, irakasle batzuk oso tradizionalak ziren. Esate baterako, behin, ikasle bat jotzeko esan zidan irakasle batek, bestela ez genuela ezer lortuko. Horrelako gauzak topatzen zenituen oraindik. 'Don' eta 'Doña' deitzen zituzten irakasleak ere topatu ditut toki askotan. Lankide batek esaten zidan, 'gu ez gara Doñak', ez genuen 'Doña' itxurarik. (barreak).

Bazeundeten ere gauzak aldatu nahi zenituztenak?

Bai, noski, hasi nintzenez honetzeko bazegoen mugimendu bat Adarra deiturikoa, pedagogia berritzearen aldekoa zena. Noizbehinka biltzen ginen irakaskuntza nola eraldatu aztertzeko. Nik D eremuan egin dut lan, batez ere, eta beti egon da horrelako mugimendurik, gauzak berritzeko eta beste era batera egiteko asmoa.

Irakaskuntza ikasi zenuen, bokazioz ikasi zenuen?

Bokazioz ez dakit, nik txikitan ez nekien zer egin nahi nuen. Egia esanda, garai hartan, neska batzuek ez zuten ikasten, etxeakoandreak ziren. Nire kasuan, Iruñean irakaskuntza ikasteko

aukera zegoen, eta lagun batzuk animatu ginen. Batxilergoa Navarro Villoslada institutuan ikasi nuen, letretan, eta irakaskuntzan ere letretako adarra aukeratu nuen, jarraipen moduko bat izan zen.

Nola gogoratuko duzu Jauntsarasko eskola?

Jauntsarasko eskola oso eskola maitagarria da. Txikia, ikasle gutxi ditu... -geroz eta gutxiago... 80 izatera iritsi zen ni han nengoela-. Beti giro oso ona izan du eta gertutasun handia. Zuzendaritza ere, beti laguntzeko prest. Irakasle berriak datozenean beti errepikatu nahi dute. Oso eskola atsegina da orokorrean. Gurasoak ere oso jatorrak dira, oso eskola hurbila da, ikasleak ere bai, noski.

35 urte irakaskuntzan... asko aldatu da ofizioa urte hauetan?

Bai, aldatu da. Alde batetik, familiak ere aldatu direlako. Guraso askok ikasi ere ikasi dute, prestakuntza gehiago dute. Bestalde, irakaskuntza bera ere asko aldatu da eta aldatuko da. Lan honetan egokitzen joan behar duzu egunero, bestela atzean gelditzen zara, prestatu behar zara etengabe.

Aldaketa guzti horiekin ere, ikaslea jartzen ari da gehiago erdigunean?

Bai, bere parte-hartzea handitu egin da. Eta horrela izan behar du. Nolabait, orain arte, gu izan gara erdigunea, nahiz eta ingelesan bereziki ez dago azalpen teoriko



Irurtzungo ikasleekin Zaurautzen. Beheko lerroan lehenengoa ezkerretik, Madali. Beheko lerroan lehenengoa eskuinetik, Joana Zíganda. Goiko lerroan lehenengoa ezkerretik Iker Urritza erasoarra.



handirik. Orain ikaslea gehiago inplikatzeko da, proiektuen bidez lan egiten da...

Eta, zerbaitek okerrera egin al du urte hauetan?

Irakaskuntzan bereziki ez nuke esango ezer okerrera egin duenik. Administratiboki edo burokratikoki bai, akaso. Adibidez, zuzendaritzan, eta Jauntsarasko eskola txiki batean geroz eta lan gehiago dago, eta ez dituzte ordu gehiago. Are gehiago, talde bat gutxiago dutenez, ordu gutxiago dituzte. Eta lana berdina edo handiagoa da. Alde horretatik, nik uste dut aldaketa bat egon behar dela.

35 urte esan nahi du zure lehenengo ikasleak 40 urte inguru izanen dituztela, egin duzu topo noizbait ikasle ohiren batekin? Zer esan dizute?

Behin Latasan, Txaniren dendan, ikasle ohi batekin egin nuen topo. Irakasleen artean ni bakarra gogoratzen ninduela esan zidan! Eta gero Ingeles Filologia ikasi zuela! Oso oroimen ona zuela esan zidan, baina pentsatzen dut denetarik egonen dela (barreak).

Goizargi Santxo, Eritze (Atetz) lankidea izan du Jauntsaratsen:

“Beti laguntzeko prest, beti ardurak hartzeko prest. Lankideren batek laguntza behar baldin badu, beti prest azaldu da. Beti lasai eta kezkarik gabe”.

Joana Ziganda, Oskotz (Imotz) ikaslea eta lankidea Irurtzunen:

“Beti oso lankide ona izan da, beti laguntzeko prest, gozoa, beti irribarre batekin... Gero, ikasteko, eguneratzeko, klaseak motibagarriak egiteko gogoz, beti. Eta irakasleaz oso oroitzapen politak ditut eta ditugu. Izan ere, oraindik badituzte garai hartako lagunak eta eskolaz hizketan hasten garenean beti Maialen aipatzen da. Oso irakasle dinamikoa zen eta berarekin konexio berezi bat sortzen zen. Irurtzundik joan zenean pena handiz agurtu genuen, eta oraindik gogoan dut berak gutako bakoitzari kutxatxo bat oparitu zigula goxoki batzuekin eta tapatxoan mezu pertsonalizatu batekin. Eta gogoan dut urte askoz gorde nuelako!”

“**Lanbide honetan egokitzen joan behar duzu egunero, bestela atzean gelditzen zara, etengabe prestatu behar zara**”



Irurtzungo ikasleekin, irtenaldi batean ▲



▲ Jauntsaratsen

Fitxa teknikoa

Ikasketak:

Irakaskuntza Iruñean eta Hizkuntza Erromanikoak Gasteizen

Lehenengo urteak, Araban:

Gasteizen, Agurainen eta Izarran

Ondoren Iruñean,

Iturraman, 10 urtez

Irurtzunen, gero

Azken 7 urteak Jauntsaratsen, Basaburuan



Itzuli da Zozketa Mundiala, eta muga ere gainditu dute sariek

Aurreneko urtean izurriteak bertan behera utzi zuen zozketa, eta, beraz, gogo handiz egin da aurten. Urtarrilaren 9an, igandearekin, 130 sari banatu ziren Esan Erran irratian emititutako zozketan, Nora Ramoneda eta Benito Alberro esatari zirela. Sari gehien Ultzaman banatu zen, 25. Baina Basaburua gertu izan zuen, 22 sarirekin. Kantitatea alde batera utzi eta kalitateari begiratzen badiogu, ordea, Lizason (Ultzama) izan zuten zorte gehien, bi zerri eta axuri bat bertara joan baitziren.

Azkeneko asteetako Covid-19 kasuen ezusteko gorakadak kolokan jarri zuen berriz ere Zozketa Mundiala, baina azkenean, neurriak hartu eta aurrera jarraitzea erabaki zuen Ametza Kultur Elkarteak. Konfinatu eta kutsatu kopuru horrekin, ordea, boletoak saltzen dituzten herritarrek buruari eragin behar izan zioten, eta askok mugikorreko chat aplikazioak baliatu zituzten.

Ez dakigu non saldu ziren boleto kopuru gehien, baina datuek esaten digutenez, Iraizotz izan da, beste behin ere, sari gehien jaso dituen eskualdeko herria, osotara, zazpi. Ondoren, Berueten eta Igoan banatu dira gehien, bost eta sei sari jaso dituzte, hurrenez hurren. Balantzaren beste aldean dago Odieta, sari bakarra jaso baitu, Erripan. Anuek eta Atetzek bosna sari jaso dituzte; eta, Imotzek, hamar.

Eskualdetik kanpo, urtero bezala, Iruñean banatu dira sari dezente, 12. Baina aurten, gainera, mugaz bestalde joanen dira hainbat sari: zerri bat (edo harategiko bonoa) Zaragozaraino, eta, El Villar de Arnedora (Rioja) Izarpe kanpineko otordua.

Dena den, Lizaso izan da herririk sarituena, sari potoloetatik hiru jaso ditu: bi zerri eta axuri bat. Gainera, zerri bat eta axuri bat herritar berak jaso ditu, Iñaki Ariztegik. Berarekin eta zerriaren irabazle batzuekin hitz egin dugu.



Sofía Cano ▲

Sofía Cano , Zaragoza (Aragoi)

Esan bezala, Zaragozara ere iritsi dira Pulunpeko zerri marrazkidun boletoak. Nola? Bada, Matilde Mendibururen bitartez, Ametzako kideren baten oso gertukoa... "Matilde nire lankidea eta laguna da eta urtero erosten dizkiot boletoak", esan digu Canok. Eta boleto horiek aurten saria ere bidali dute mugatik harago, zein eta zerri gizenaren saria! Sofia Canok irabazi du, eta pozik hartu du albistea: "Zer diozu???? aiaiaiii! Ze ongi!!". Dena den, askok izaten duten zalantza bera argitu nahi izan du "Aizue, baina zerria ez didazue bizirik bidaliko ezta? (barreak)". Imajinatu dezakezue, 200 euroko boletoa eskuratu du, harategian erosteko.



Zozketa Mundialeko boletoak prestatzen ▲

Irene Marturet Armendariz, Lizaso, Txakurtxulokoa:

Zerria irabazi duten gehienek hartu dute ilusioz, baina Irenek bezainbeste poza gutxik hartu izan dute. Ilusioz eta sinetsi ezinik jaso zuen berria:

"Bai zera!! Bai, Orgin erosten ditut eta inoiz ez zait tokatu. Anaiari bai, tokatu zitzaion ez dakit zein urtetan axuria. Baina...egia al da tokatu zaidala??? Ene! Esker mila orduan!".



Irene Marturet Armendariz Lizasoarra, Txakurtxulo etxekoa ▲



Iñaki Ariztegi, Lizaso:

Zerriarekin bakarrik konformatu ez, eta axuria ere irabazi du lizasoarrak. Bai, hau ere Lizasora, zorioneko urtea, 2022koa Ultzamako herri honendako: "Ez, ez, tako osoa ez nuen erosi. Boletoa Erripan erosi nituen, Irigiri, eta zorte ona eman zidala dirudi! Oso pozik, urte guztia pasatzeko adina haragi dugu!". Lizasoko elkartean bazkaria egin beharko ote duten galdetuta: "bada, bai, bai, zerbait egin beharko dugu!". Irratian esanda, grabatuta geratzen da. Lizasoarrak, kontu eske joan beharko zarete irabazleengana.



Eneko Compains Arantz eta Zeiane alabekin, zerria etxean eta bizirik nahi zuten txikiek baina harategiko bonoa hartu dute azkenean ▲



Susana Ziga ▲

Susana Ziga Romero, Lanzko Lamienea etxekoa:

Sorpresa handia hartu zuen Susana Zigak ere, eta telefonoz gurekin ari zen bitartean etxekoei berria eman zien: "Ai amaaa! Zerria tokatu zaigula, zer eginen dugu guk orain zerri batekin?". Azkenean harategiko 200 euroko bonoarekin gelditu dira Lantzen, eta oso pozik daude sariarekin, esan digutenez. Urtero Lanzko hainbat herritarri erosten dizkiete boletoa, eta horrela iritsi zaie sari potoloa. Aurten, hamar erosita.

Rosa Gartzia Legarrea, Iraizotz, Telefonoa etxekoa:

Esan Erran irratitik deitzen geniola esan bezain pronto arrazoia imajinatu zuen Rosa Gartzia, eta poz-pozik hasi zen barrezka "Donostian bizi naiz baina Iraizotzkoa dut familia eta eguberrietan eta maiz etortzen naiz, hemen harrapatzen nauzue orain, anai-arrebak hemen bizi baitira. Izurritean ere Iraizotzen izan naiz". Aurten, bereziki izan dute zortea, izan ere ohi baino boletoa gutxiago erosi dituzte: "Aurten, izurritea tarteko, pixka bat isolatuta gaude. Ilobak ez dira etorri eta normalean haiei erosten dizkiegu. Hau da tokatzen zaigun lehenengo aldia, ordea".

Javier Ariztimuño, Leitzza:

Leitzara joan da saria, bai, baina ez Garazik salduta. Beste norbait ibili da, beraz, herrian Pulunpeko boletoa saltzen. Esan Erran irratitik deitzen geniola entzun bezain pronto, hauxe izan zen bere erantzuna: "Adios! Zer tokatu zait?". Eta, "zerri gizona" entzuterakoan: "Cauen! Banekien! Ez adarra jo! Ez al dago besterik?". Zerriak gustatzen zitzaizola esan zigun, "baina gehiegi da!". Ariztimuñok ere harategiko bonoa eskuratuko du. "Ultzamara irtenalditxo egingen dut bonoa eskuratzeko aitzakiarekin".

Iñaki Urbina San Martin, Aurrabia:

Urbina ere ez zuen sinesten zerria Aurrabiara zihoala: "Ez dizut sinesten! Benetako zerri bat tokatu zait?". Urbina zalantzatan dago, ez daki zerria hartu edo harategiko bonoa, baina zerria eramaten badu agindu digu seme bat bezala zainduko duela: "Etxola bat ere egingo diot!". Hirian bizi bada ere, oso pozik agertu zaigu sariarekin: "Ze ilusioa! Pentsatu nuen, ea tokatzen zaidan, baina oso zaila ikusten nuen! Heldu den urtean tako guztia erosiko diot Itziarri!". Hau ere grabatuta geratu da.

Eneko Compains Silva, Iruñea:

Pozik agertu zen Euskal Herriko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakaslea, nahiz eta hasieran ez zuen oso argi saria zein zen "Baina, barkatu, zer esan didazu tokatu zaidala?". Bai, zerri gizen bat, bai, Arrotxaperako bidean. Compainsek twitterren jarri zuenez, etxean eta bizirik uztea eskatu diote alabek, eta pipi-pig gune bat eskatzeko gomendatu diote beste batzuek. (Txakurrek pisa egiteko hirian jartzen dituzten belarrezko eremu itxiei pipi-can deitzen diete). Azaldu digunez, azkenean, bonoarekin gelditzea erabaki dute: "Arrotxapeko pisu batean nekez sar dezakegu zerri bat bizirik, azalduko diegu txikiei (barreak)".



Rosa García Legarrea ▲







Txakurren heziketari eta zaintzari eskainitako espazioa Igoan

17 urte inguru daramatza Virginia Fernandez donostiarrak Igoan bizitzen, eta eskualdera iritsi zenetik txakurra erdigunean izan duten egitasmoen parte izan da. Gaur egun, Win Win artzai txakurrak izeneko proiektuaren gidaria da bera: artzain txakurrak lanerako prestatzea, besteen txakurrak denbora batez zaintzea –txakurren hotel zerbitzua– eta portaera arazoak dituztenak zuzentzen laguntzea dira eskaintzen dituen zenbait zerbitzu

Termino komertzial batetik dator Fernandez proiektuaren izena, Win Win. “Akordio bat lortzen denean eta alde guztiak irabazten ateratzen direnean erabiltzen da”, azaldu digu. Txakurren heziketarekin gertatzen dena sinbolizatzen du, nolabait. “Azken batean, hori da proiektu honen ideia, denon onerako laguntzea”, dio.

Igoako baserrian, hainbat zelai eta itxitura ditu prestatuak Fernandezek, txakurren prestatzea eta entrenamenduetarako erabiltzeko. Antzarak, ardiak, oiloak eta beste hainbat abere ere badituzte, eta guztiek konpartitzen dute espazioa txakurrekin, nahiz bakoitzak bere lekua izan. “Txikitatik ohitzen dira hemen giro honetara, beste animaliak ere inguruan izatera”, dio.

Genetika garrantzitsua, baina ez dena

Kelpie australiar eta Border Collie arrazako hogei bat txakur ditu Fernandezek Igoako etxaldean. Urtean behin edo bitan izaten dituzte kumaldiak, eta kumeak saldu egiten ditu. Hori bai, bi hilabete eta erdi inguru ematen dituzte berarekin, eta denbora hori txakurrak prestatzeko ere erabiltzen du. “Bakarrik egoten ikasten dute normalean adin horretarako, hori da nire lana: transportinean egoten irakastea, autonomia izaten eta amaren edo beste kumeen beharrik gabe lasai egoten”. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zaio Fernandezi hori txakurrak beste leku batera joan eta han ongi egokitze.

Kelpietako bat hartu, Kiwi izenekoa, eta etxaldeko ardiak jasotzera

joan gara. Ez dizkio agindu gehiegi ematen txakurrari Fernandezek, txakurraren genetikari eta senari bere lana egiten uzten dio batez ere. Noizbehinka, agindu motz eta konkretuak: stop, look back, no... “Agindu gehiegi ematea ere ez da ona, nahasi egiten dira asko hitz egiten badiegu. Txakur batek nola funtzionatzen duen ulertu behar dugu, ez baitira pertsonak”, dio.

Pertsonarekiko harremana, gakoa

Artzain txakurrekin lan egiterakoan nahiz beste edozein arrazako txakurrarekin portaera arazoak zuzentzerakoan, ezinbestekoa da Fernandezek iritziz pertsonaren –edo familiaren– eta txakurraren arteko harremana lantzea. Hori horrela, jarraibide batzuk ematen dizkie Fernandezek jabeei, zer egiten utzi eta zer ez eta antzekoak, eta txakurrari mugak jartzen lagundu. Baina aurrean dutena ez dela objektu bat ulertzea garrantzitsua da: izaki biziduna da, eta norberak berarekiko harremana lantzea ezinbestekoa da.

Txakurrekin lotutako ikasketarik ez du Fernandezek. Horren ordez, esperientzia eta praktika izan dira bere eskola. “20 urte daramatzat honezkero txakurrekin lanean”, dio. Frantzian ere badu txakurren heziketaren munduan ari den lagun bat, eta harekin gauza asko ikasteko aukera izan du.



Virginia, artzain txakurretako batekin lanean ▲



Azukre gutxiko tiramisua light-a prestatu digu Ana Mari Gubiak

Auzako Ana Mari Gubiarekin izan gara hilabete honetako sukaldaritza atalean. Postre goxo bat prestatzen erakutsi digu: tiramisua. Hori bai, ohiko errezetan ez bezala, arrautzen zuringoa soilik erabiltzen du Gubiak errezetan, eta azukre beltza. Tiramisua light bezala izendatu digu gaurkoa, beraz.

OSAGIAK

Maskarpone gazta ontzi bat
(250 gr.)

Hiru arrautza

Bi goilarakada azukre beltz

Bizkotxoak

Kafea

Likorea

Kakao hautsa

• PAUSOAK:

1) Maskarpone gazta eta bi goilara azukre beltz ontzi batean jarri, eta guztia ongi nahasi

2) Hiru arrautzei zuringoa bereizi eta ontzi batera bota. Irabiatu eginen ditugu zuringoak (termomix-ean, irabiagailuarekin edo eskuz), ongi harrotu arte

3) Bizkotxoak kristalezko erretilu baten oinarrian zabalduko ditugu, guztia ongi estaliz. Kafea eginen dugu, eta kafe katiluari likore txorrotadatxo bat gehituko diogu. Segidan, bizkotxoak kafe eta likore nahasketa horrekin ongi-ongi bustiko ditugu

4) Zuringo harrotuak azukre eta maskarpone gazta zeuden ontziari gehituko dizkiogu, eta dena ongi nahasi

5) Nahasketa hori erretiluan zabalduko dugu bizkotxoaren gainetik, ongi tapatuz, eta gainetik kakao hautsa zabalduko dugu. Nahasketaren txuri guztiak estalita gelditu behar du.

6) Erretilua film paperarekin estaliko dugu eta gau osoan hozkailuan utziko. Tiramisua ongi hoztea eta trinkoago gelditzea da helburua.

▼ Tiramisua



▲ Tiramisua prestatu digu Ana Mari Gubiak



Notarioen etxeak XVIII. mendean.

Hemengo notariotzarik printzipalena, Ihabengoa, 1550. urtean sortu zuten eta XIX. mendearen bukaeran hertsu. Gure alderdi guzira harrapatzen zuten, Larraun jo artio. XIX. mendean berrantolaketa bat egin zen eta Lizasokoa sortu zen, Ihabengoarengandik bereiziz. 1829. urtean etorri zen Lizasora lehen eskiraua.

Bukatu ere bukatu, XIX. mendearen azken urtetan bukatu ziren Ihabengoa eta Lizasokoa, Lekunberrikoari atxiki zitzaizkiolarik.

Ez hain aspaldi artio Notarioei euskaraz **eskribauak** edo, hobeki esan, **eskirauak** esaten zitzairen. Gaur, XVIII. mendeko notarioen etxeen fotografiak ekarri nahi izan ditugu, askotan notario edo eskirau hauen etxeak ez baitziren nolana hikoak. Gehientsuenak teiltatua lau aldeetara duten etxeak dira, Jauregi askok bezala. Etxe ederrak eta arkitektura aldetik esanguratsuak gehientsuenak. Ihabengo **Jauregia** etxearekin hasiko gara.

Harmarria: lau makal hosto dituen.



Ihabengo Jauregia

Etxe honek, herri aldera ematen duen etxe-aurrea, XIX. mendearen bukaeran edo berritua du. Pobre samar edo oso pobre ageri zaigu kanpotik. Leihoak handitu argi gehiagoren bila, baina izkinak harri landu gabe ageri dira. Armarrria bera ere ia ikusezina da, paretan sartua beste harri bat bezala, batere nabarmendu gabe, ez etxe oneko jaunei gustatzen zitzairen bezala eta gure herrietan ikusten diren bezala. Konponketa hau izan ote liteke notario batek egin? Ez dirudi. Jauregi honen etxe-aurre hau seguru orain baino ederrago zela.

Etxe-aurre hondatu honi kontrajarriko genioke ezker aldeko etxe-aurrea, nahiz ate bat tapatu zioten eta balkoiak eta abar erortzera utzi, eder ageri oraindik

ere; berreskuratu daitekeena, alegia.

Bestalde, beheko solairuan ere baditu leiho handi batzuk, bertan izan baitzen eskola (Ihaben, Itsaso, Udabe-Beramendi eta Jauntsaraskoa) XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran.

Etabarnea nola ageri zaigu? Barnean ere ageri dira konponketak baina jauregi baten zantzu nabarmenak ageri ditu oraindik ere. Hor ditugu eskailerak adibidez.

Aipagarri iduritzen zaigu, komunarena. Jauregi hauek komuna izaten zuten, eta honetan, ur zikinak etxetik ateratzeko ubidea oraingo jabeek obretan ari zirela opatu zuten, harri landuz ederki egin. Bai, etxe galanta izan zen hau, eta oraindik ere hor ditu hainbat elementu arkitektoniko eder.



Azpikoaldeko fatxada. Hau du hobekien gorde dena, baina hor ageri dira leiho berrituak, ate tapatuak eta abar. Balkoi erori bat, bestea porlanez berreraikia, etxeko larrainera zituen eskalera ederrak desagertuak...



▲ Barneko eskalera, behetik gora fotografatua

Ihabengo Jauregiko notarioez bi zertzelada

Bederatzi notario izan ziren etxe honetan, lehen 1663an izendatuzuten, dirudienez, lehen sinatu zituen dokumentuak urte horretakoak baitira. **Orokietay Yaben** zuen deitura eta hala segitu zuten luze. Ia erreskan zazpi izan ziren, **Orokiet eta Yaben**. Zortzigarrena Faustino Etxenike, notarioa, Beratatik etorri zen nagusi etxe honetara, bertako alaba zen Maria Manuela Orokiet eta Yaben Etulainekin ezkondu zenean. Eta bederatzigarren

eta azkena, hauen semea, Tomas Etxenike Orokiet eta Yaben. Entzun izan dugunez, jokatzailea zen eta etxaldea jan zuen, eta ez nolana hikoia, alajaina! (Ihabenen **Jauregia, Etxeberria** eta **Larrañekoa**, Itsason **Errandonea**, Orokietan **Arotzenea** eta Jauntsaratsen **Etxeberria**, ondasun handia) Honek hondatu ote zion etxeari goiti aipatu dugun etxe-aurre hori? Ez zait iduritzen, ondorengo jabea izanen zen aurki.

OHARRA 1: Orokiet hauek Orokietako Iriartean dute jatorria, eta Ihabengo Jauregia Saratsako jaunari erosi zioten XVI. mendearen hasieran, eta urte askoren ondoren egin zuten alda Ihabena, 1560.ean edo, gutxi goiti-beheiti.

OHARRA 2: Aipatu ditugu bederatzi notario izan zirela, baina Ihabengo notariotza izan baino lehen Orokiet familia honetako buru bat notarioa izan zen Iruñean, Miguel Perez de Orokietay Albiasu, 1572. urtean sortua.

Bestalde aipatu gabe ere ezin utzi, apez franko ere izan zela etxe honetan.

Herri aldera duen fatxada. Hau erabat berritua dago. Armarría erdi ezkutatua bigarren estaian. Lan guzi hauek XIX. mendearen bukaeran egin zirela iduritzen zaigu edo XX. hasieran. Jauregi eder honen xarma galduta! Tamalgarria!

Txurdan
Patxi Oskotz

Hiztegia

Notariotza: Notariado

Eskribaua=Eskiraua: Escribano edo Notario.

Teilatua lau aldetara=lau isuriko teilatua

Esanguratsua: significativo

Mendea: siglo

Jauregia: palacio. Ihabengo honek izen hori du gainera.

Etxe-aurrea= fachada

Erreskan: segidan

Alda: mudanza (etxez aldatu)





Herrian elkarri lagundu behar diogu

Abuztutik hona Bittori Macías Cía eta Domi Cía Oteiza lehengusinek daramate Anueko ostatua. Macías Olaguen bertan bizi da, ostatu ondoan; eta, Lizasokoa da Domi Cía. Ostalaritzan lan egin dute aurretik, baina beti langile gisa. Orain, egunero-egunero kudeaketaz ikasten ari dira. Gogorra dela diote, baina pozik daude.

Urtarrilaren erdiko egun argi batean hurbildu gara Anueko ostatura, bazkalostean eta astez. Dagoeneko Ultzamako eta Anueko taldetxo bat bildu da terrazan, kafea hartzeko. Beste batzuk barruan daude oraindik, bazkaltzez ez dute bukatu. Egia esan, aspaldi ez genuela horrelako giroa sumatzen Olaguen.

Berpizkunde horren atzean Bittori Macías Cía eta Domi Cía Oteiza lehengusinak daude. Abuztuan hartu zuten Anueko ostatua. Nahiz eta buruan ez izan, bat-bateko erabakia izan zen. Bittori Macías Cía: "Ni ondoko etxean bizi naiz eta aukera atera zen...". Cía Oteizak, ordea, barre artean, bera lehengusinak nahastu zuela esaten digu.

Egunero ikasten

Bittori Macías Olaguen bizi da eta urte asko eman ditu ostalaritzan: "17 urterekin hasi nintzen eta orain 47 ditut, atera kontuak! (barreak). Baina beti beste batendako lanean aritu izan naiz, hau berria da biondako".

Domi Cía Oteiza, berriz, ultzamarra da, Lizasokoa: "Berria eta eromen handia! (barreak). Ni ere ostalaritzan aritu naizenean beste norbaitendako egin dut lan. Baina, gainera, oso aspaldi izan zen hori", Bittori Macías barran eta zerbitzatzen aritzen den bitartean, sukaldeaz arduratzen da Cía Oteiza, gaztetan zerbitzari gisa lan egin bazuen ere, gerora, gehienetan sukalde laguntzaile aritu baita.

Erronkak badu saririk

Izurrite garaian hartutako herri txiki bateko ostatuak baditu oztopoak, baina baita sariak ere. Bittori Macías Cía: "Ongi egiten duzunean,

poztasuna handia da. Duela gutxi erretiratuen bazkari bat izan genuen, Tafallatik etorritako 90 pertsonarekin, bailarako mutil baten bitartez. Besarkadak eta muxuak ere jaso genituen, dena oso ona zegoela esan ziguten. Gero ahoz aho zabaldu dute, eta etorri zaigu jende gehiago. Niri horrek konpentsatzen nau". Bailarak, herriak eta eskualdeak ere oso ongi erantzun du, eta lehengusina Ultzamakoa izanik, bertatik ere etortzen dira asko.

Domi Cía Oteiza: "Eta jendea ezagutzea oso polita da, ateratzen zara eta denok agurtzen dituzu, haiek ere zurekin hitz egiten dute. Hiri handi batean baino harreman estuagoak egiten dira. Eta gero gainera elkarren artean asko laguntzen diogu, okinak adibidez asko laguntzen digu, edozein ordutan deituta ere ogia ekartzen dizu...". Ostatuok ere, bertakoei erosten dizkiete produktuak: arrautzak, gazta eta bestelakoak. Domi Cía Oteiza: "Elkarri lagundu behar diogu!".

“Hiri handi batean baino harreman estuagoak egiten dira hemen”



Bittori Macías Cía eta Domi Cía Oteiza
Olagueko ostatuko terrazan

Anueko Ostatuko eskaintza

Menuak:

Eguneko eta asteburuko menua

Afaltzeko:

hainbat proposamen, aldatzen doazenak.

Plater konbinatuak eta hanburesak, dena etxekoa.

Ostegunetan:

Juepintxoak.



Irantzu Beloki, maila goreneko txapelketetan lehiatzen

Txantrean bizi arren, Urritzarekin (Imotz) lotura estua mantentzen du Irantzu Beloki txirrindulariak. Aita imoztarra du, eta txikia zenetik izan dute udan eta jai egunetan hara joateko ohitura familiar. Gaur egun txirrindularitzan buru-belarri dabil gaztea, eta ongi gogoratzen du txikia zenean nola ibiltzen ziren aita, anaia eta hiruak bizikletaz eskualdeko herriak zeharkatzen; Urritzatik Udabera, eta buelta. Makina bat aldiz egin omen dute bide hori.

Noiz eta nola hasi zinen txirrindularitzan?

Berez urte asko daramatzat honetan, lehiaketetan ari naizela hamar bat urte badira. Hasiera batean, igeriketan aritzen nintzen, eta hortik egin nituen lagunekin hasi nintzen ziklismoan. Txikitan, gurasoek haien semeei bezalaxe niri ere kirolerako zaletasuna pasatu zidaten, txikitatik izan naiz kirolzalea. Irurtzunen bizi izan gara, eta gogoratzen dut hor beti plazan bizikletarekin ibiltzen nintzela...

Eta modu profesionalagoan?

laz hasi nintzen maila profesionalagoan. Lehen ere lehiaketak egiten nituen, baina ez oraingo mailan, Espainia mailan izaten zen gehiago.

Orain hortik kanpo ere aritzen zara, beraz?

Bai, Espainiatik kanpoko txapelketak ere egiten ditugu. Hemen Euskal Herriko tornea, Espainiako txapelketak eta profesional mailako lasterketak ditugu, Nafarroako eta Donostiako klasikak kasu. Espainiako Vuelta, Valentziako Klasika eta horrelakoak ere egin ditugu. Horiez gain, Frantzia ere ibili gara, La Perigord izeneko lasterketan adibidez.

Entrenamenduak ere geroz eta gogorragoak izanen dira, ezta?

Bai, gogorrak dira. Prestatzaile fisiko bat dugu taldean, eta astean egin beharreko entrenamendu guztiak bidaltzen dizkigu berak. Astean sei aldiz entrenatzen dugu, beraz, egun bakarra libratzen dugu. Aurre-denboraldian

mendira joan, gimnasioa, lasterka eta horrelakoak egiten ditugu gehiago, baina otsailetik aurrera lasterketak hasten direnez, orduan bizikletaz ibiltzen gara gehiago.

Eta prestaketa eta lehiaketa horiek ikasketekin uztartu behar...

Bai, maisutza ikasten ari naiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta entrenamenduak eta ikasketak uztartzen ditut. Egia esan, batzuetan ez da erraza, baina saiatzen naiz eguna ongi antolatzen dena egin ahal izateko!

Nola ikusten duzu emakumezkoen txirrindularitza? Pixkanaka bere lekua egiten ari da?

Tira, egia da azken urteetan gehiago ikusten dela emakumezkoen txirrindularitza. Aurten, adibidez, lehen aldiz eginen da emakumeentzako Frantziako Tourra. Iaz Tourraren antzeko zerbait egin zen, baina egun bakarrekoa. Aurten, berriz, egun askokoa jarri dute lehen aldiz. Dena dela, uste dut oraindik desberdintasun handia dagoela mutilen ziklismoarekin alderatuta, eta egiteko asko dagoela. Komunikabideetan ere gutxi lantzen da oraindik gurea, eta ez badute grabatzen ez dago emakumeentzat publizitaterik, eta gorpil zoro bat bihurtzen da... Baina, tira, bai, pixkanaka hobetzen ari da.





Urtarrileko egun hotz bat

Hotz dago. Eta pandemia indarrean da. Etxean geldituko nintzateke gustura baina adiskide baten bisitatzera joan behar izan dut, gure alderdiko herri batera.

Bertara iritsi, autoa etxearen aldamenean utzi, musukoa ederki muturrean tinkatu eta adiskidearen etxeko atalgaina bultzatu dut.

Etxeko beheko ezkaratzean hiru nexkato jostaketan, pilotan, zuriz pintatutako paretak zikintzen. Kanpoan ez da giro.

-Egunon, zer ari dira neskato hauek? –nik.

Eta horrela jardun dugu hizketan eta haietako ausartenak hara zer bota didan:

-Zure parecidoa duen lagun bat badugu.

-Lagun bat? Edo adiskide bat?

-Zer da adiskidea?

Adiskidea zer den azaldu nahi

Hiztegia

Urtarrila. Hemen beti ilbeltza ibili izan da.

Adiskide baten bisitatzera=Adiskide bat bisitatzera hemen.

Tinkatu: estutu

Atalgaina: Gure herrietako etxe zaharrek kanpoko atea bi orrikoa izaten dute. Eta alde batean irekitzen ahal den goiko partea da atalgaina.

Ezkaratza: paso, entrada.

Jardun=ari

Parecido=antza (nexcatoak ez zekien hitz hori, dirudienez)

Aurki: probablemente (Gipuzkoa aldean beste adiera batean ibiltzen dute: agudo esanahiarekin)

Ihardukia=Jarduna=hizketa.

Solastatu= hitz egin

Atzeman= descubrir

izan diet. Ez dakit nire azalpenak balio izan dien adiskidea zer den ulertzeko. Dena dela, neskatoak argiak dirudite eta uste dut zerbait behintzat ulertu dutela.

Ni harritu naiz, nire antza duela esan didanean, musukoa baitaramat. Zertan ote antza? Aurki ahotsean izanen dugu antza! –nik nereko.

Eta berriz ere galdetu:

-Zuen adiskide hori zer da, irakaslea?

-Bai, irakaslea da.

-Eta nongoa da irakasle hori? –nik harrিতuxe.

-Lesakakoa.

-Lesakakoa?

.....

Ez dut iharduki guzia kontatuko, ez baitu gehiagoko inportantziarik

Bai, harritu nauena da nire ahotsa eta euskal azentua Lesakakoaren antzeko atzematea neskato hauek.

Eta gustatu zait, nire hitz egiteko moldea eta nire azentua ez baitira lesakarrenak bezalakoak, nire ustez, baina neskatoak dute arrazoi. Inork ez diete azentu konturik erakutsi, baina bistakoa da badugula antzekotasunik. Neskato hauek

belarri ona ez dutenik ezin esan. Bistan da!

Zer ba? Esanen duzue.

Bai, izan Bizkaiko Txorierrikoa, izan Lapurdiko Itsasokoa edo Zuberoako Lexantzükoa, edo gurera etorriz, izan Igoakoa, denak dira euskal azentuak, denak bere desberdintasunean dute antzekotasun handia. Euskal doinuak eta azentuak, sakonean badute zerbait baino gehiago komuna: denak dira euskal azentuak. Hortaz dira bereizten erdal azentuekin, izan espainola izan frantsesa, horiek dira arrotzak. Arrotzak, azentu horiek dira. Eta, gaurko egunean zoritxarrez, euskal azentua galtzen ari gara: Ultzamako azentu bikaina eta Imozko azentu ederra.

Egun hotz honen harira gaur azentuaz solastatu gara. Gure azentuaz, euskal azentuaz. Ardo frexkoa dut atzeman gaur nik, baina nahiago nuke neskato horiek ere ardo frexko horretaz gozatuko balukete.

Eskoletako haur eta irakasleak, saiatu azentuari eusten gure hizkuntzaren ondasun inportante bat da eta!

 Txurdan



Txulo batetik bezala ageri den herri hori izan liteke aipatu nexkato horiena, baina ez da. Dena dela izan zitekeen, zure herria izan liteken moduan, denetan ari baikara euskal azentua galtzen.



Mingain urdina eta txertoa

Aurten, berriro ere, iritsi da gure etxetara administrazioaren gutuna. Atlantiar isuri aldean mingain urdin kasu bat (08 aldaera delakoa) agertu dela eta - Estatuko Nekazaritza ministraritzako datuen arabera azkena 2020an Baztanen agertutako kasua dugu- beste behin behartu gaituzte gure artaldeak zein behiak txertatzera. Hau horrela, gure ezinegona eta desadostasuna adierazi nahi dugu.

Joan den urtean kasu bat azaldu izanagatik erabaki hau modu sistematikoan hartzea gehiegizkoa dela iruditzen zaigu, are okerrago momentu honetan egitea. Alde batetik, negu sarreran, eltxo gutxien dagoen garaian egiten delako, beraz, transmisiorako arrisku gutxien dagoen garaian. Eta, bestetik, azienda erditzen ari denean edo erditzekotan denean jartzen delako, horrek eragiten dituen ondorioekin: aziendak sufritu egiten du, azienda-buru gehienak erabat gortuta gelditzen dira gutxienez hiru egunetan eta kasu batzuetan umatzeak aurreratzea ere ekartzen du.



Mingain urdinaren txertoaren inguruan hausnarketa partekatu dute Nafarroako hainbat abeltzainek ▲

Derrigortzea beti zigorrarekin, mehatxuarekin eta xantaiarekin lagunduta etorri ohi da: esaterako, txertatu ezean, giak ateratzeko debekuarekin, hau da animaliak sal-erosteko oztopoarekin. Erabaki hau hartuz gero, mugaz hegoaldera giak egitea oztopatzen zaigun bitartean -eta hortaz salerosketa oro tratatzen- era berean mugatik honat, iparraldetik axuriak ekartzen dituzte. Iaz mingain urdin kasu gehienak Ipar Euskal Herrian izan ziren. Eta hala ere, Frantzian, barne merkatura bideratutako animalien kasuan txertoa hautazkoa izan zen eta da gaur egun, bakarrik esportaziora zuzentzen diren animalientzako derrigortzen dutelarik. Nafarroan, berriz, ez da bereizketarik egiten. Ganadua esportaziora edo bertako elikadura sistemetara bideratu, bi kasuetan derrigorrezkoa da. Ze ulertu behar dugu jokabide honekin? Hemengo administrazioak farmazia-industriari salduak daudela, akaso? Jokaera honen harira, adierazi nahi dugu nazkatuta gaudela jarrera paternalista hauekin eta beti mehatxu-pean ibili behar izateaz. Ezin ote ditugu abeltzainok gure kabuz erabakiak hartu? Zergatik egon behar dugu beti beldur-pean? Non gelditzen da gure

erabakitze askatasuna, gure burujabetza? Nabari da inposaketaren kultura hezurretaraino sartua dugula, administrazioa agintekeriaz eta zigorrez erasoz zuzentzen baitzaigu beti. Bukatzeko, honatx Nafarroako administrazioari egiten dizkiogun bi eskaera: bat, mingain urdinaren txertoa, Frantzian bezala, barne merkatura zuzendutako azientaren kasuan hautazkoa izatea eta derrigorrezkotasuna ezartzekotan esportaziorako ekoizpenari jartzea; bi, txertoa jartzeko garaia animaliak antzu daudenean izatea, hau da, ardien kasuan bederen uda sarreran, gaixotzeko eta gaitza zabaltzeko arrisku handiena orduan izaten baita eltxoen ugaritzearekin batera.

2021eko abenduaren 27 Nafarroako 14 abeltzainek sinatutako dokumentua:

Jose Javier Sestorain, Jose Angel Azpiroz, Mirian Otxotorena, Roberto Urrutia Atienza, Amaia Iturriria, Jurgi Goikoetxea, Francisco Javier Laguardia Barriocanal, Marina Collado Horcajada, Sergio Cobo Peligrin, Javier Iribarren Ibarra, Ignacio Suescun Hualde, Raul Serrano, Miguel Iribarren Ibarra, Xabier San Jose Dominguez



Otsailerako kultura eta irakurketak

Musika, ipuin-kontalariak, dokumental bat, hitzaldi-eztabaida bat edo irakurketa-klubaren saio ireki bat, horiek dira otsailean ostiral kulturalak eskaintzen dizkiguten jardueretako batzuk.

IpuinKantariak

Hilabetea Musas eta Fusasekin hasi genuen, eta otsailaren 4an IpuinKantariak ikuskizuna ekarri ziguten. Beraiek dioten bezala, "funtsezkoa da haurrei abestea. Kantatzea baikortasunaren, bizitzeko alaitasunaren, gozamenaren, konexioaren eta maitasunaren oda da. Abesteak konektatzen gaitu. Haurrei kantatzen badiegu, musika-trebetasunak naturaltasun handiagoz garatzeaz gain, enpatia, komunikazioa eta garapen emozional osasuntsua izateko joera handiagoa izango dute. Ipuin, istorio, fantasiako kontakizun eta hain errealak diren istorioekin identifikatuak sentitzen garelako. Errespetuzko haur-literaturako ipuinak, ipuin delikatuak, ipuin dibertigarriak, ipuin eskatologikoak, pentsarazten diguten ipuinak, dantzan jartzen gaituzten ipuinak... horiei guztiei musika jartzen diegu. Gure ikusle maiteak ikuskizunaren funtsezko parte dira, bere ahotsekin, bere erritmoarekin". Eta horrela izan zen, Musas y Fusasek konposatutako kantei esker.



Arte erromanikoa eta gaurkoa

Hileko bigarren ostiralean, otsailaren 11n, Helena Bengoetxearen dokumentala ikusi ahal izan genuen. Petrusen zuzendari nafarrak galdera bat egin du: Ba al dute loturarik arte erromanikoak eta XXI. mendeko hargintzak? Film labur honek Erdi Aroko Girgitiango Petrus harginaren eta Joseba Lekuona eskultore modernoaren arteko harremanari heltzen dio, baita despopulazioari eta nafar ondareari ere. Proiektzioa egileak lagunduta izanen da.

Lehen sektorea gaur

Otsailaren 18an, EHNE sindikatuko bi teknikariek makroetxaldean inguruko polemikaren ondorioz puri-purian dagoen eta gure inguruari zuzenean eragiten dion gai baten inguruan eztabaidatuko dute: Lehen sektorearen egoera, tamainak, ereduak, bertakoa, alde sozioekonomikoak, prezio duinak, lurrarekiko errespetua, biztanlegoaren finkatzea, eta abar.



Irakurketa-klubaren saio ireki bat

Hilabetea jardunaldi berezi batekin itxiko dugu. Ultzamako irakurketa-taldeak saio irekia egingo du, nahi duen orok parte har dezan, eta hainbat gonbidatu izango ditu. Afrikako Kairaba elkarteko hainbat emakumek azalduko digute nolakoa den haien bizitza gure artean, zein den Afrikako emakumearen egoera, Afrikan eta European, eta hainbat gai jorratuko dituzte, hala nola mutilazio femeninoa, matxismoa...

Horretarako, Mariama Ba idazle senegaldarraren liburua hartuko dute abiapuntutzat, Afrikako literaturako liburutik garrantzitsuenetako bat, eta Afrikako emakume matxistez eta haien arazoez arduratzen den lehena... Nire gutun luzeena (beherago aipatzen duguna) irakurketa-klubean irakurri dugun azken liburua da. Norbaitek liburua irakurri nahi badu, liburutegian oraindik ere badaude aleak eskura.



Collage ikonoklastikoa

Azkenik, Kollage Ikonoklastikoa izeneko erakusketarekin osatuko da programazioa. Egileak, Aitzol de Carlosek, honela aurkezten digu erakusketa: "Collage artista, nolabait, anarkista ikonoklasta

bat da. Zatitan puskatzen eta mozten ditu "benetako" irudiak, eta gero beste batzuk eraldatzen eta sortzen ditu, ezagutzen den errealitate orotatik kanpo".



Eta beste bat: 39 idazle nafar

Gainera, eta irakurketa-klubekin jarraituz, urtarrilean ere saio berezia izan zuen euskarazko klubak, 39 idazle nafar idazle nafarren kontakizunen antologia irakurri eta komentatu genuen, eta horietako bat izan genuen gonbidatu: Patxi Zabaleta. Besteak beste, liburuko bere ipuina, Nafarroako euskarazko literaturaren egoera, eta bere azken lanetako batzuk aurkeztu zizkigun.

Bide batez, bi irakurketa-klub hauetako edozeinetan parte hartzera animatzen zaituztegu. Ondoko helbidera idatzi besterik ez duzue egin behar: liburutegia@ultzama.es.

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuzaina

Liburu bat: Nire gutunik luzeena

Lehen esan dugun bezala, Nire gutunik luzeena da hilabete honetan irakurri dugun liburua, gaztelaniazko irakurketa-klubean, eta otsailaren 25ean, ostirala, irekitako saio batean komentatuko dugu. Nire gutun luzeena Afrikako literaturako eleberririk garrantzitsuenetakotzat jotzen da, Mariama Batsak Senegalgo emakumeen egoerari buruz egiten duen lanagatik. Alargun gelditzearen ondorioz egin zuen itxialdi tradizionalan, Ramatoulayek Aïssatouri idazten dio, herrialdetik kanpo bizi den lagunik onenari. Eskutitz horretan protagonistaren bizitza nolakoa izan den, behartutako ezkontzei buruz duen ikuspegi pertsonala, emakumeek bizi duten injustizia soziala eta poligamiak eragiten

dion desamodio eta engainu sentimendua islatzen ditu (Modou, bere senarra, neska gazte batekin ezkondu zen 25 urtez ezkontuta egon ondoren eta 12 seme-alaba

amankomunean izan ondoren); kritika bat ere egiten du kasten sistema, familia eta erlijioa bezalako gaien aurrean, baina zorientasuna ere sorrarazten du.





Emakumeok naturarekin bat eginez

Azkeneko mende erdian, Mendebaldeko jendartean gure eguneroko bizitzarako ezinbestekoak bihurtu diren "behin erabili eta bota" motako



▲ Duela hamarkada pasatxotik hileroko kopak erabiltzeko aukera zabaldua dago gure artean

hainbat produktu sartu dituzte: paperezko mukizapiak, paperezko musuzapiak, toailatxoak... Horietako asko eta asko zaintzari lotutako produktuak dira, eta sarritan, iragarkiak ikusi besterik ez da egin behar, ohartzeko emakumeon bizitza errazteko produktu gisa saltzen dizkigutela.

Gure bizimoduak eragiten dituen kalteak erreparatuta, bizitzeko era berriak berrasmatzen ari garen honetan, produktu hauen ordezkoen bilaketak ez du etenik; batzuetan urte batzuk atzera begira jarrita topatzen dugu erantzuna, eta besteetan, aldiz, gauza berriak asmatzean.

Hilabete honetan, emakumeok ilargiaren zikloarekin konektatzen gaituen hilekoaren inguruan dauden aukerak jarri nahi ditut hizketagai. Tamaina, itxura eta kolore guztietako erabilera bakarreko konpresa zein tanpoiez bete dituzte gure poltsak, diruzorroa hustuta ere, azkenean zakar poltsetan bukatzeko. Zorionez, bada hamarkada pasatxo, hilekorako kopa aukeratu dezakegula, aukera eroso zein ekologikoa. Oraindik frogatu ez baduzu, hilabete honetarako zure erronka izan daiteke!



Zorionak Zorionak!





2021eko abendua

2021eko abenduan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ULTZAMA Eltzaburu

Markel Oitz Herranz, Aritz eta Lauraren semea, abenduaren 15ean sortua.



▲ Inar pozik da bere anaittoarekin



Zorionak
gurasoei



Ezkontzak:

Guk dakigularik, abenduan ezkontzarik ez da izan.

Eugenio Oria Mundin joan zaigu

Leazkueko **Beltraneko** nagusia joan zaigu. Eugenio Oria hil da. Hori izan da ilbeltz honetako berri lazgarria. Ospitaleko nutrizionista eta dietetika Saileko aurreneko medikua izan dena hil zaigu. Eta gaixo askoren mediku maitagarria joan zaigu. Laster, oso laster erretiroa hartzekotan zenean, uste gabean zendu da, Ospitaleko Larrialdietan.

Irribarre garbia batzuetan eta ironikoa askotan, Administrazioaren norabidea okerretik okerrera ikusten zuena, medikuen korporatibismotik urrun zebilena, utzikeria gaitzesten zuena... Eta bai, gure mediku hori hil egin zaigu.

Gaixoon ona eta osasuna denen gainetik jartzen zuena zen Eugenio, antifuntzionario bat gaixoen zerbitzura. Bere bulegoa irekirik topatuko zenuen behar ordu batean, egunak eta asteak zain egon gabe.

Bai, funtzionarioetan ere ikusten dira Eugenio bezalatsukoak, baina gero eta gutxiago; protokolo, ordenamendu, paper eta ordutegien zerbitzura baitago gero eta langile gehiago. Tamalez!

Eta bukatzeko ez nuke aipatu gabe utzi nahi, orain berriki Leazkueko alkate kargua nola utzi zuen: haize errota erraldoiak jartzearen kontra borrokan ahalegindu bai, baina ez zuen fruiturik erdietsi. Jendea lehenik kontra eta gero alde! Haize errota Mantxakoak bezalakoak bihurtu zitzaizkion. Eta, *ez du merezi!* esanez bukatu zuen.

Eta ez dut atzentzekoa, Pulunperako kolaborazioa eskatu eta ez zuela duda izpirik ere jarri. Hori bereziki aldizkari honetatik eskertu nahi nioke. Hala agindu nion: *bere etxera joanen nintzaiola, hitz eginen genuela nutrizioaz zer nolako artikulua ateratzen...* Lehenik ni geldo samar eta gero Pandemiaren etorrerak, gure asmoak atzeratuz


joan ziren. Azkenean heriotzak ekarri digu ezina.

Vicky andreari eta bere semei gure doluminik sentikorrenak.

Goian bego gure mediku handia; eta gizon hobea.



Txurdan



Eugenio Oria ▲

2021eko abendua

Heriotzak:

ANUE

Rosario Zalba Goñi, **Lopitxeneko (Bizkarrondo)** nagusia; abenduaren 19an hil zen 85 urtetan.
Jesus Bizkarrondo Egozkue, **Etxeberriko** nagusia; abenduaren 22an hil zen, 76 urtetan.
(Oharra: Azken urte hauetan biak **Etxeberrian** bizi ziren)



▲ Rosario Zalba



▲ Jesus Bizkarrondo

BASABURUA Igoa


Angel Telletxea Liceaga, **Irazabal bordako** semea; abenduaren 9an hil zen 83 urtetan.



▲ Angel Telletxea

Gartzaron

Bernardo Orrio Garro, **Muñoko** semea, abenduaren 8an hil zen, 66 urtetan



▲ Bernardo Garro

Beruete

Joaquin Juanbeltz Garmendia, **Mitxetoneko** semea, abenduaren 26an hil zen 84 urtetan.

Teofila Azpirotz Garro, **Arotzeneko** etxeandrea, abenduaren 31an hil zen, 90 urtetan



▲ Joaquin Juanbeltz



▲ Teofila Garro

IMOTZ Etxaleku

Mertxe Goialde Palacios, **Oihanarte bordakoa**, abenduaren 28an hil zen 60 urtetan.



▲ Mertxe Goialde

ODIETA Gaskue

Jose Lopez Undiano, Gaskueko **Urritxeneko** nagusia, abenduaren 10ean hil zen 81 urtetan



▲ Jose Lopez Undiano

ULTZAMA Gorrontz

Pedro Iraizotz Ollakarizketa, **Erasoneko** nagusia; abenduaren 1ean hil zen 89 urtetan.



▲ Pedro Iraizotz

Urritzola

Matilde Barberena Erroizarena, **Martiñenezarreko** etxeandrea zaharra; abenduaren 16an hil zen 93 urtetan.



▲ Matilde Barberena

Alkotz

Maria Antonia Ziaurritz Elizondo, **Martikoneko** alaba, abenduaren 21ean hil zen, 94 urtetan



▲ Maria Antonia Ziaurritz

Suarbe

Jose Maria Ilarregi Artze, **Sandroneko** nagusia, abenduaren 29an hil zen 88 urtetan.



▲ Jose Mari Ilarregi

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2021-2022 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina		
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Landaberri	Goiz Kronika Osasun etxea
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Amarauna	
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia		
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Goizak gaur + Kirol legez	
						Bertsoinka	BerriaFm Lur eta Murmur
14:30-15:00	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Kera Deia (Zuzenean)	
15:00-16	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	ADI	Beranduegi / Hankak Lurrin	Soinugela
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Hiru kortxea	
18-19	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		Erro ta berri
19-20	Gelditu makinak (Zuzenean)	Kultur kuboia	Zuria Beltzez	Global musik	Revolutionary grooves	Gaur Egun	Lore Hostoak (Eitb Potkast)
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
21-22	Barruan gaude (Eitb Podcast)	Piperpolis (Zuzenean)	Nola aldatzen diren gauzak (Zuzenean)	Klak	Zarata Zarautz	Haus of Beats	Irratiko Fikzioa
22-23	Musika	Urratsa (Eitb Podcast)	Sateliteak (Zuzenean)	Reggae Fever (Zuzenean)	Musika		

EGUN ERO: Esan Erran Irratia: Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika

ARROSA SAREKO IRRATIAK: Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA: Metropoli Forala

BESTEAK...: Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM